



Birundaren desalojoa salatzeke, manifestazioa egin dute Donostian

INAXIO ESNAOLA :: 29/03/2025

Birundako kideek euren aldeko epai bat eskuratu zuten duela gutxi, hala ere, martxoaren 19an hustu zuten gune autogestionatua.

Martxoaren 19an hustu zuten Donostiako Parte Zaharreko Abuztuak 31 kaleko Birunda gune autogestionatua. Operazioa "ilegala" izan zela salatu zuten egunean bertan Birundako kideek, euren aldeko epai bat eskuratu dutelako duela gutxi. Gertaturikoa salatzeke, manifestazioa deitu zuten gaur arratsalderako, eta hainbat herritarrek bat egin dute Birundaren itxieraren kontrako martxarekin.

Gunea hustu ondoren, Birundako kideek ohar bat plazaratu zuten: "Duela hilabeteak, sententzia bat jaso genuen Gipuzkoako Auzitegitik. Bertan, Donostiako 2. Instrukzio Epaitegiak ezarritako usurpazio delitutik absolbitzen gintuen; espazioa modu legalean erabiltzen ari gara, beraz. Orain, espaziorako eta barruan dugun material guztirako sarbidea ukatzen zaigu". Kaleratzearen ondorioz, Birunda erabiltzen zuten pertsona eta eragileek "jarduera guztia gelditu" egin dela deitoratu dute: "Erabil genezakeen auzoko espazio bakarretik umezurtz geratu gara".

Gertaturikoaren aurka, Parte Zaharrean barrena manifestazio zaratatsua egin dute, eta hainbat pintaketa egin dituzte hormetan Birundaren itxiera salatzeke.

Birundaren aldeko manifestazioa egin dute Parte Zaharrean barrena - Irutxuloko Hitza : Irutxuloko Hitza

<https://eh.lahaine.org/birundaren-desalojoa-salatzeko-manifestazioa-egin>